

Asisko gutuna

2020ko urria

4. printzipioa. Bidea elkarrekin egin, anaitasunez bizi

144. zenbakia

Asis Sarea eguneroko bizimoduan espiritualtasun frantziskotarra ezagutu edo partekatu nahi duten lagunen sare sozial irekia da.

Urrian gaude, frantziskotar hilabetea, gure santuaren jaiarekin eta Asisko Espirituaren ospakizunarekin. Bertan, bakearen alde otoitz egiteko erlijioen mundu mailako topaketa gogoratzen da. Desberdinen arteko topaketaren hilabetea da.

San Frantziskok eta Santa Klarak lagun gaitzatea Jainkoarekin eta elkarrekin bat eginik senide desberdinen artean bizitzen.

Gogoetarako gaia

Anai-arreba desberdinak

Gero eta gizarte pluralagoan bizi gara. Aniztasuna kulturen, jatorrian, erlijioan, ideologian bizi da. Eliz komunitate berean, fedea eta elizako kide izateko eta bizitzeko modu desberdinak daude. Desberdinekin bizitzera deituak gaude, eta denok anai-arrebak garelako esaten dugu. Erraza da pentsatzea eta esatea denok berdina garelako duintasunari dagokionez, baina elkarbizitza zaila da eguneroko errealitatean.

Horregatik, borondate onenarekin, berdintzen gaituzten minimo komunak aurkitzen saiatzen gara, eta horien gainean eraikitzen ditugu elkarbizitzarako moduak: antzeko beharrak ditugu, bizi-modu duina nahi dugu, espazio publiko berberak erabiltzen ditugu, eskola berberak ditugu, etab. Baina horrek guztiak ez du desegiten, adibidez, norberaren fede-identitatearen kontzientzia. Nola bizi behar da gizarte-berdintasunean fede desberdineko izanik?

Ikasketa luze baina emankorra da anai-arreba desberdinekin bizitzea. Beharrezkoa da gure egien horizontea ideologikotik harantzago zabaltzea, gure pentsamoldeak eskaintzen duenetik harantzago; beharrezkoa da begirada gure itxaropentatik, iritsi nahi ditugun zehaztasunetatik gorago jasotzea; beharrezkoa da zerumuga gure maitasunetatik, gure bihotzean bizi diren aurpegietatik harantzago zabaltzea.

Horrela, gure anai-arreba izatea zirkulu ezagun eta kontrolatuaz haraindi zabalduko da. Horretara gonbidatzen gaitu Jesusek etsaiak, jazartzen gaituztenak, gu baino gutxiago direnak... maite behar ditugula hitz egiten duenean. Maitatu gure gisakoa ez dena, desberdina dena. Anaia izatea, arreba izatea amaitu ezineko abentura bat da, baina hezur-haragizko pertsonetan gauzatzen dena. Jesusen Erreinuaren zeinu zehatza da gure artean gaur egun.

Bibliako pasartea: 1 Kor 12,14-20

Gorputza, izan ere, ez du atal bakarrak osatzen, askok baizik. Oinak «Eskua ez naizenez gero, ez naiz gorputzarena» esango balu, ez lioke horregatik gorputzarena izateari utziko. Eta belarriak «Begia ez naizenez gero, ez naiz gorputzarena» esango balu, ez lioke horregatik gorputzarena izateari utziko. Gorputz guztia begi balitz, non entzumena? Eta dena belarri balitz, non usaimena? Baina Jainkoak bere tokia jarri zion atal bakoitzari gorputzean, berak nahi bezala. Denak atal bat balira, zer-nolakoa izango litzateke gorputz hori? Baina ez, atalak asko dira; gorputza, ordea, bat bakarra.

Frantziskotar espiritueltasuna

Esaten zuen, anaia txiki onak ondoren aipatzen diren anaia santuen biziera eta ezaugarriak beregan bildu behar zituela: alegia anai Bernardoren fedea, neurri betean izan baitzuen hark fedea pobretasunaren maitasunarekin batera; anai Leonen xalotasuna eta garbitasuna, biziki garbia izan baitzen benetan; anai Aingeruren kortesia, Ordenara sartu zen lehen zalduna izan baitzen, eta gizalegez eta onberatasunez jantzia; anai Maseoren itxura atsegina eta naturaltasuna, bere hizketa eder eta debotoarekin batera; anai Egidiok bete-bete izan zuen kontenplazioaren bidez altxaturiko espiritua; anai Rufinoren etengabeko otoitz bertutetsua, etengabe otoitzean ari baitzen: lotan edo zerbait egiten ere, haren gogoia beti Jaunarekin zegoen; anai Juniperoren pazientzia, pazientiaren neurri batera iritsi baitzen, beti begien aurrean zeukan bere kaskartasuna sakon-sakonetik ezagutuz eta gurutze-bidetik Kristo imitatzekeo desira handiaz lorturikoa; Lodiko anai Joanen gorputzeko eta espirituko indarra, bere garaiko gizon guztien gainetik baitzen indartsua; anai Rogerioren karitatea, bere bizitza eta jardun guztia maitasun-garretan eman baitzuen; anai Luzidoren ardura nekaezina, hilabete batean ere ez baitzuen leku berean egon nahi izaten: lekuren bat gogoko egiten hasten zitzaioneko, ihes egiten zuen handik, esanez: "Mundu honetan ez daukagu egoitzarik, zeruan baizik". (PerIsp 85)

Otoitza

Jauna, ikus dezadala.
 ...zure aurpegia ikus dezadala
 izkina bakoitzean.
 ... desederatua barrez ikus dezadala,
 barre alai eta berpiztuaz.
 Ilusioa pizten ikus dezadala
 egunen batean amets egitea eta sinestea
 ahaztu egin zitzaionaren begi itzalietan.
 Ikus ditzadala,
 ezkutuak baina nekaezinak badira ere,
 maitasun, bake eta etorkizuneko mirariak
 eraikitzen dituzten besoak.
 Aukera eta deia ikus ditzadala
 batzuetan lanbroa besterik ez dagoen lekuan.

Ikus dezadala
 nola berreskuratutako duintasunak
 munduko infernuak ixten dituen.
 Bestean Ikus dezadala senidea,
 ispiluan, apostolu bat
 eta ikus zaitzadala Zu nire barnean.

Ez dudalako itsu ibili nahi,
 zure aurrean galdurik,
 ezerezak distraita...
 nire urratsak erratuz
 Zu gabeko lekuetarantz.

Jauna, ikus dezadala...
 Zure aurpegia ikus dezadala kantoi bakoitzean.

José María Rodríguez Olaizola, jl.

Gutuneko azken hitzak

Bizikidetza etengabeko ulermen- eta eskuzabaltasun-lan gaitza da, eta ez dago amore ematerik.

(Enrique Rojas)

2020ko urriko eguneroko Ebanjelioa

Egunero Ebanjelioa irakurri nahi duten lagunek, egun bakoitzari dagozkion irakurgaien arabera, hemen daukate urriko erreferentzia guztiak:

01 Lk 10, 1-12	08 Lk 11,5-13	15 Mt 11,25-30	22 Lk 12, 49-53	29 Lk 13, 31-35
02 Lk 10, 13-16	09 Lk 11,15-26	16 Lk 12, 1-7	23 Lk 12, 54-59	30 Lk 14, 1-6
03 Lk 10, 17-24	10 Lk 11, 27-28	17 Lk 12, 8-12	24 Lk 13, 1-9	31 Lk 14, 1.7-11
04 Mt 21, 33-43	11 Mt 22, 1-14	18 Mt 22, 15-21	25 Mt 22, 34-40	
05 Mt 7, 7-11	12 Lk 11, 27-28	19 Lk 12, 13-21	26 Lk 13, 10-17	
06 Lk 10, 38-42	13 Lk 11, 37-41	20 Lk 12, 35-38	27 Lk 13, 18-21	
07 Lk 11, 1-4	14 Lk 11,42-46	21 Lk 12, 39-48	28 Lk 6, 12-19	

Geure web gunea bisitatu

www.asissarea.org



Asis Sarea

646 21 48 96

Urrian elkarrekin
 ospatuko dugun otoitza
 24ean izango da
 19:30tan